




1206 - 2018

Dekretua.064 Material Eskolarra 2018ko deialdia

ALKATETZAKO DEKRETUA

 Lasarte-Orian, bi mila eta hemezortziko ekainaren 6an.

IKUSIRIK Udal honetako Osoko Batzarrak 2018ko maiatzaren 8an hartutako erabakiak, zeinaren bidez "Eskolako materiala erosteko familientzako laguntzen eta Lasarte-Oriako merkataritzaren aldeko babesaren oinarriak" onesten diren, 2018ko ekainaren 1eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak.

Ikusirik bestalde, oinarri horien 6.puntuak honela dioela: Laguntzak Udalean indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuetan ezarritako zenbatekoaren kargura emango dira. Diru-laguntza horiek dagokien ekitaldirako ezarritako gehienezko diru-kopuruarekin egongo dira hornituta.


Ikusirik baita ere, 2018ko udal aurrekontuetan aipatutako oinarrietan zehazten diren diru-laguntzetarako diru-kopuru hau dagoela izendatua:

"Familientzako laguntzak Hezkuntza" 1-0402-480-01-326-10 2018 (1104) kontu sailean, 10.000,00€.

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Lege apirilaren 2koak ematen dizkidan eskumenen bertutez.

EBATZI DUT:

- 1.- Eskolako materiala erosteko eta Lasarte-Oriako merkataritzari babes emateko familientzako diru-laguntzen 2018ko deialdia onestea
- 2.- Deialdi hori 10.000,00 euroekin hornitzea, "Familientzako laguntzak Hezkuntza" izeneko 1-0402-480-01-326-10 2018 (1104) kontu-sailetik.
- 3.- Deialdi hori Udal honetako Osoko Batzarrak 2018ko maiatzaren 8an hartutako erabakiak onetsitako "Eskolako materiala erosteko eta Lasarte-Oriako merkataritzari babes emateko familientzako diru-laguntzen oinarri arautzaileen" arabera kudeatzea. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2018ko ekainaren 1eko).
- 4.- Familien urteko errenta-tarteak eta tarte bakoitzerako diru-laguntzaren zenbatekoa ezartzea, honako desglosamendu honen arabera:



<u>Tartea</u>	<u>Familiaren urteko errenta</u>	<u>Ikasle bakoitzeko gehienezko diru-laguntza</u>
1. tartea	20.000 €-ra arte	90,00 €
2. tartea	20.001 €-tik 30.000 €-ra	65,00 €
3. tartea	30.001 €-tik 40.000 €-ra	35,00 €

Ez da laguntzarik izango 40.001€-tik gorako errenta brutoak dituzten familientzat.

5.- Eskaerak aurkezteko epea 2018ko irailaren 3tik urriaren 2ra bitartean ezartzea

6.- Deialdi hoti Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.



Nire aurrean,
Idazkaria

